*Edozein moduz ere, aldaketa hau behin betiko onartutakoan, bukatu egingo da etenaldi hori.*

*4.- Udal Plangintzako Aholku Batzordeari dei egitea aldaketaren gainean egin beharreko txostena egin dezan."*

*impacto socio-lingüístico.*

*El documento ha incluido la perspectiva de género. El anexo 8 contiene el informe sobre impacto de género validado por la Sección de Igualdad el 3 de febrero de 2020.*

*El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 25 de junio de 2020, adoptó el siguiente acuerdo:*

*"1º.- Aprobar con carácter inicial la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana referente al ámbito "IB.12 ILLARRA" a las parcelas Villa Ereski ("AY.18 MUNTO), Depósito ("IB.17 FUNDACIÓN MATIA) y a terrenos de ERREGUENEA (documento fechado a abril de 2020)*

*De cara a la aprobación provisional se redactará un documento que recoja las condiciones marcadas en los informes y solvente de acuerdo a los mismos todas las cuestiones planteadas.*

*2º.- Someter el expediente al trámite de información pública durante el plazo de un mes.*

*3º.- Proceder a la suspensión, por el plazo máximo de dos años, de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias, en la totalidad del ámbito objeto de ordenación en los términos del artículo 85 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo*

*La suspensión se extinguirá, en todo caso, con la aprobación definitiva de la presente modificación.*

*4º.- Convocar al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, al objeto de que emita el correspondiente informe respecto a la Modificación."*

*Jendaurrean egon den epean alegazio hauek aurkeztu dira:*

*Durante el plazo de exposición pública se ha presentado las siguientes alegaciones:*

*Elkarrekin Donostia.

**Elkarrekin Donostia.*

**Pinuen Bidea 16-18 Jabeen Komunitatea:*

**Comunidad Propietarios Camino de los Pinos 16-18.*

*Alegazioen gaineko txostenak aztertu ondoren, bidezkoa da alegazio guztiak ezestea. Txosten horiek erantsiko behar dira, motibazioa azaltzeko.*

*Analizados los informes a las alegaciones procede desestimar en su totalidad las mismas. Se adjuntarán los citados informes a modo de motivación.*

*2006/2 Legearen 109 artikuluarekin bat eginez Planeamenduko Batzorde Aholkulariak 2021.ko otsailaren 1.an ospatuko bileran irizpena eman zuen.*

*De acuerdo con el artículo 109 de la Ley 2/2006 el 1 de febrero de 2021 se celebra el Consejo Asesor de Planeamiento donde se dictamina este expediente.*

*Udalbatzak, 2021.eko otsailaren 25.an honako akordio hau hartu zuen:*

*El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 25 de febrero de 2021, adoptó el siguiente acuerdo:*

*"1.- Osorik ezestea Elkarrekin Donostia eta Pinuen Bidea 16-18 Jabeen Komunitatea aurkeztutako alegazioak.*

*2.- "IB.12 ILLARRA" eremuari, "AY.18 MUNTO" Villa Ereski eta DEPOSITO"IB.17 FUNDACIÓN MATIA" partzelei eta ERREGEGUNEKO lursailei buruzko Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Xedapen - Aldaketa hasiera batean onartzea. (2020.ko azaroko data)*

*3.-EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzea espedientea, bere txostena egin dezan hark."*

*"1.- Desestimar en su totalidad las alegaciones presentadas por Elkarrekin Donostia y la Comunidad de Propietarios de Camino de los Pinos 16-18.*

*2.- Aprobar con carácter provisional la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana referente al ámbito "IB.12 ILLARRA" a las parcelas Villa Ereski ("AY.18 MUNTO), Depósito ("IB.17 FUNDACIÓN MATIA) y a terrenos de ERREGUENEA (documento fechado a noviembre de 2020).*

*3º.- Remitir el expediente a informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco."*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, lehenengo saio bat bertan behera utzi ondoren, 2021.eko uztailaren 14.an ospatutako 2021/5 bileran,*

*Finalmente, tras una primera convocatoria aplazada, la Comisión de La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco informó favorablemente el expediente en*

*aldeko txostena eman zuen.*

*Era berean, 2021.eko uztailaren 20.ko Agindua dago, babes publikoko etxebizitzetarako bizitegi-eraikigarritasuna Illarrako eremura eramatea onartuz.*

*Behin betiko onarpenerako aurkezten den dokumentua 2021.eko uztaileko data dauka eta honako txosten hauek ditu:*

**Juridikoa: 2021.eko azaroaren 12.an.*

**Ekonomikoa: 2021.eko azaroaren 15.an.*

**Ingeniaria: 2021.eko azaroaren 15.an*

**Arkitektua: 2021.eko abenduaren 13.an.*

*Dokumentua behin betiko oarpenerako derrigorrezkoak diren txosten sektorial guztiak ditu. Bereziki, Iparraldeko Ur Konfederazioa, URA eta Añarbeko Urak, gainera, 2022.ko otsailaren 19.ko Itsasoko eta Kostaldeko Zuzendaritza Orokorrarena.*

*Martxoaren 24ko 46/2020 lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen Dekretuaren 29.12 artikuluaren arabera,*
*Zazpi mila biztanle baino gehiagoko udalerrietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren emaitza ikusi ondoren, udalak, hala badagokio, behar diren aldaketak egingo ditu, eta hiri-antolamenduko plan orokorra behin betiko onesteko erabakia hartuko du*

*Ondorioz, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari*

*sesión celebrada el 14 de julio de 2021, sesión 5/2021.*

*Asimismo, consta orden de 20 de julio de 2021 autorizando el traslado de la edificabilidad residencial destinada a vivienda de protección pública al ámbito de Illarra.*

*El documento que se presenta para su aprobación definitiva es el fechado el julio de 2021 y cuenta con los siguientes informes:*

**Jurídico: 12 de noviembre de 2021.*

**Económico: 15 de noviembre de 2021.*

**Ingeniero: 15 de noviembre de 2021.*

**Arquitecto: 13 de diciembre de 2021*

*El documento cuenta con todos los informes sectoriales necesarios para su aprobación definitiva. En particular los informes de la Confederación Hidrográfica del Norte, URA y Aguas del Añarbe, además del informe de 19 de febrero de 2022 de la Dirección General de la Costa y el Mar.*

*Según el artículo 29.1 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, "En los municipios con población superior a siete mil habitantes, y a la vista del informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y del resultado de la evaluación ambiental estratégica, el ayuntamiento introducirá las modificaciones oportunas y adoptará el acuerdo de aprobación definitiva del plan general de ordenación urbana."*

*Procede, en consecuencia y de conformidad*

*eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 91. artikulua aintzakotzat hartu eta behin betiko onarpena ematea dagokio.*

*Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzenduena aintzakotzat hartu eta Donostiako Udalbatzak*

*E R A B A K I  D U*

*1.- "IB.12 ILLARRA" eremuari, "AY.18 MUNTO" Villa Ereski eta DEPOSITO"IB.17 FUNDACIÓN MATIA" partzelei eta ERREGEGUNEKO lursailei buruzko Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Xedapen - Aldaketa behin betikoz onartzea, kontuan hartuta Erregeneako lursail guztiak Kostaldeen eragin-eremuaren eraginpean daudela.*

*Zati arautzailea argitaratu baino lehen, zuzendu egin behar da "Villa Ereski" (AU "AY.18 Munto") partzelaren Arau Partikularren 12. artikuluan jasotako babes publikoko etxebizitza tasatuaren erabilerari dagokion koefizientea, eta "3,00" ordez "2,08" koefizientea jarri behar da.*

*Urbanizazio proiektuak aztertuko du Begoña Landaburu kale itsuarentzako irtenbide teknikorik egokiena zein den, beste puntu arriskutsurik ez sortzeko.*

*Illarra IB.12.1 eremuan aurreikusitako eraikigarritasunaren gehikuntzaren ondoriozko etxebizitza kopuruari dagokionez, horien % 50 Babes Publikoko Etxebizitzen (BPE) erregimenekoak izango dira, Hirigintza Hitzarmenean eta Proiektuaren Memorian (28. eta 44. or.) jasotakoaren arabera. Illarrako eraikigarritasunaren gehikuntzaren ondorio diren 262 etxebizitzetatik, 131 etxebizitza (% 50),*

*con lo establecido en el artículo 91 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, su aprobación definitiva.*

*Visto cuanto antecede y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de este Ayuntamiento*

*A C U E R D A*

*1.- Aprobar definitivamente la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana referente al ámbito "IB.12 ILLARRA" a las parcelas Villa Ereski ("AY.18 MUNTO), Depósito ("IB.17 FUNDACIÓN MATIA) y a terrenos de ERREGUENEA, teniendo en cuenta que los terrenos de Erregenea en su totalidad están afectados por la zona de influencia de Costas.*

*Con anterioridad a la publicación de la parte normativa, se ha de subsanar el coeficiente "3,00" correspondiente al uso de vivienda de protección pública tasada que figura en el artículo 12 de las Normas Particulares de la Parcela "Villa Ereski" (AU "AY.18 Munto" y sustituirse por el "2,08".*

*El Proyecto de Urbanización estudiará la solución técnica más adecuada a dar al Callejón de Begoña Landaburu para evitar la generación de nuevos puntos peligrosos.*

*Con respecto al número de viviendas asociadas al incremento de edificabilidad previsto en el ámbito IB.12.1 Illarra, el 50% de las mismas se destinarán al régimen de Viviendas de Protección Pública (VPP), según lo recogido en el Convenio Urbanístico y en la Memoria del proyecto (pags 28 y 44), estableciendo que de las 262 viviendas asociadas al incremento de edificabilidad en*

*etxebizitza libreak izango dira, eta gainerako 131 etxebizitzak (% 50), berriz, babes publikoko erregimen batekoak izango dira.*

*2.- Espediente osoa eta izapidetua bidaltzea Kostaldeko eta Itsasoko Zuzendaritza Orokorrera, 2022ko otsailaren 19.ko txostena adierazitakoa kontutan hartuz*

*3. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena bete eta planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.*

*Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2022.ko otsailaren 28.an.”* ================================

*Illarra, 131 viviendas (50%) se destinen a vivienda libre, y las restantes 131 viviendas (50%) se destinen a viviendas sujetas a algún regímen de protección pública.*

*2.- Remitir el expediente completo y diligenciado a la Dirección General de la Costa y el Mar teniendo en cuenta las consideraciones del informe de 19 de febrero de 2022.*

*3.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del Plan.*

*Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en San Sebastián a 28 de febrero de 2022”.* ===========================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeitabiko martxoaren hogeitabostean.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veinticinco de marzo de dos mil veintidós.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”·

---------------

**7. Behin betiko onespena ematea "MZ.06 Agerre" Hirigintza Eremuaren Hiri-Antolamenduko Plan Bereziari, a.40.3 lurzatiari dagokiona.**

“Udal teknikariek zuzendutako zirriborro batzuk aurkeztu eta gero, 2021 otsaileko datarekin “MZ.06 Agerre” hirigintza eremuaren a.40.3

**7. Plan Especial de Ordenación Urbana. Aprobación definitiva. MZ.06 Agerre.**

“Tras presentar varios borradores objeto de correcciones por parte de las técnicas y técnicos municipales, con fecha de febrero de 2021 se

lurzatiari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Berezia bere izapide eta onarpenerako aurkezten da

Planaren helburu nagusiena gehienez 11 etxebizitza eraikitzea da, aipatutako etxebizitza erabilera horrentzat 1.320,65 $m^2$(s)eko eraikigarritasun bat ezarriz, “a.401 eraikuntza atxikiko bizitegiko” tipologiarekin.

Aurrekari modura eta prozeduraren ikuspuntutik, dagokion zirriborroa aurkeztu eta gero, 2018.ko abenduaren 26.an Ingurumen - Ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasi zen, eragindako Administrazio Publikoei eta pertsona interesatuei egin beharreko kontsultak eginez. Espediente zenbakia EAES-143 da.

Aipatutako prozedura 2019.ko ekainaren 12.ko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren ebazpenaren bidez amaitzen da, bertan, Plan Bereziak ez duela eragin garrantzitsurik izango ingurumenean eta, beraz, ez dela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar esaten da.

Aipatutako ebazpena Euskal herriko Aldizkari Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2019.ko uztailaren 23.an.

Dokumentuaren ebaluazio sozio-linguistikoa egin da, Euskerako Zerbitzuak 2021.eko uztailaren 29.an idatzitako txostena espedientean sartuz.

Generoaren araberako ebaluazioa ere eginda, Berdintasun Atalak txostena idatziz 2019.ko irailaren 18.an.

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2021.eko

presenta para su tramitación y aprobación el Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela a.40.3 del ámbito urbanístico “MZ.06 Agerre”.

El objetivo principal del Plan es la constucción de un máximo de 11 viviendas, siendo la edificabilidad destinada a ese uso residencial de 1.320,65 $m^2$(t), con una tipología “a.401 residencial de edificación abierta”.

Como antecedente, desde el punto de vista procedimental, tras presentar el correspondiente borrador, con fecha 26 de diciembre de 2018 se inició el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, iniciando la fase de consultas a las Administraciones Públicas afectadas y a las personas afectadas. El expediente es el EAES-143.

Dicho procedimiento culmina con la Resolución de 12 de junio de 2019 del Director de Administración Ambiental del Gobierno Vasco, por la que se formula el informe ambiental estratégico del Plan, determinando que no se prevé que vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y por tanto, no debe de someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria.

Dicha resolución de publica en el Boletín Oficial del País Vasco de fecha 23 de julio de 2019.

Se ha procedido a realizar la evaluación socio-lingüística del documento, constando informe del Servicio de Euskera fechado el 29 de julio de 2019.

También se ha procedido a realizar la evaluación de impacto de género, consta informe de verificación de la Sección de Igualdad fechado el 18 de septiembre de 2019.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada

ekainaren 15.an ospatutako bileran, honako akordio hau hartu zuen:

“1.- Hasierako onespena ematea “MZ.06 Agerre” hirigintza eremuaren a.40.3 lurzatiari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Berezia

Behin betiko onartu aurretik, ordea, beste testu bateratua aurkeztu beharko da, Udalaren Zerbitzu Teknikoek adierazitako baldintzak jasoko dituenak, alegia.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea, alegazioak egiteko bidea izan dadin: “

Espedientea jendaurrean egon den epean ez dira alegazioak aurkeztu.

Dokumentuaren behin betiko onespenari begira, honako txosten tekniko hauek egin dira (2021.eko abuztuan idatzitako dokumentua):

- Arkitektura: 2022.ko urtarrilaren 19an.

-Ekonomikoa: 2021.eko azaroaren 9.an.

-Juridikoa: 2021.ko urriaren 6.an.

-Ingeniaritza: 2021.eko azaroaren 4.an.

-Mugikortasuna: 2021.eko azaroaren 11.an.

Beharrezkoak diren txosten sektorialak ere bildu dira.

Behin betiko onarpenerako aurkezten den dokumentazioak 2021.eko abuztuan aurkeztutako dokumentua barneratzen du, horretaz gain, laburpen exekutibo berri bat udal txosten teknikoak eskatuta, eta memoria berri bat telekomunikazio txostenak esandakoa betetzeko. Argitaratzeari begira, testu bateratu bat aurkeztu beharko dute.

el 15 de junio de 2021, adoptó el siguiente acuerdo:

“1º.- Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela a.40.3 del ámbito urbanístico “MZ.06 Agerre”

Con carácter previo a su aprobación definitiva se deberá presentar un nuevo documento que contenga las condiciones señaladas por los Servicios Técnicos Municipales.

2º.- Someter el expediente a información pública por plazo de veinte días al objeto de que se puedan formular alegaciones.”

Durante el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones.

De cara a la aprobación definitiva del documento se han emitido los siguientes informes técnicos (documento de agosto de 2021):

-Arquitectura: 19 de enero de 2022,

-Económico: 9 de noviembre de 2021.

-Jurídico: 6 de octubre de 2021.

-Ingeniería: 4 de noviembre e 2021.

-Movilidad: 11 de noviembre de 2021.

También se han recabado los informes sectoriales necesarios.

La documentación que se presenta para su aprobación definitiva incluye el documento presentado en agosto de 2021, un resumen ejecutivo nuevo derivado de las exigencias de los informes municipales y una nueva memoria adaptada a las exigencias del informe de telecomunicaciones. De cara a la publicación deberán de presentar un texto refundido.

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 97. artikuluak eta bete behar diren gainerako aginduek jartzen dutena aintzakotzat hartu eta izapidetu egin behar da plana.

Procede, en consecuencia su tramitación, de conformidad con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y demás preceptos de aplicación.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Araubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzen duena aintzakotzathartuta, Donostiako udalbatzak,

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián,

E R A B A K I  D U

A C U E R D A

1.- Behin betiko onespena ematea “MZ.06 Agerre” hirigintza eremuaren a.40.3 lurzatiari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Argitaratzeari begira testu bateratu bat aurkeztu beharko dute.

2.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

1º.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela a.40.3 del ámbito urbanístico “MZ.06 Agerre”

De cara a la publicación deberán de presentar un texto refundido.

2.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del plan.

Donostian, 20221.ko otsailaren 22.an.

San Sebastián, a 24 de febrero de 2022.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZUZENDARIA / EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Izpta. / Fdo.: Juan Antonio Chávarri Sarasua

HIRIGINTZA SOSTENGAGARRIKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA /
LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE
Izpta. / Fdo.: Miren Nekane Arzalluz Iturriza”

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO BATZORDEA**

**COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS**

**8. Onartzea udalaren alde emandako irrati-maiztasunen jabari publikorako emakidari, tokiko telebista digitalari dagokionari, uko egiteko erabakia.**

“UDALBATZARI

AURREKARIAK

I. Irrati-maiztasunen jabari publikoa erreserbatzeari buruzko DGSS-0800469 espedientearen esparruan, 2007ko urtean zehar Fomento de San Sebastián, SAk, udal titularitateko merkataritza-sozietateak, Donostian Tokiko TDT kanal bat sortzea proposatu zuen, komunikaziorako eta herritarren partaidetzarako kanal bat izateko eta, horrenbestez, herritarrak erakunde publikoetara eta Udalak ematen dituen zerbi-

**8. Aprobar la renuncia de la concesión del dominio público radioeléctrico otorgada a favor del Ayuntamiento, correspondiente a la televisión digital local.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

ANTECEDENTES

I. Que en el marco del Expediente DGSS-0800469, relativo a la reserva de dominio público radioeléctrico, durante el año 2007, Fomento de San Sebastián, S.A., sociedad mercantil de titularidad municipal, propuso la creación de un Canal TDT Local en Donostia-San Sebastián a los efectos de poder contar con un canal de comunicación y participación ciudadana que permitiese acercar a la ciudadanía a las instituciones públicas, así

tzuetara hurbildu ahal izateko.

II. 2007ko otsailaren 14an, Donostiako Udalaren Ohiko Osoko Bilkuran, Fomento de San Sebastián, SAk eskatu zuen tokiko telebista kanal digitala zuzenean kudeatzea TL04SS erreferentziarekin identifikatutako 23 multiplex digitalaren barnean, eta “Tokiko telebista kanal digitalaren zuzeneko kudeaketaren onarpena” ziurtagiria jaso zuen. Udal idazkari nagusiak eman zuen ziurtagiria eta, ondoren, 2007ko otsailaren 28an, Alkatetzak ikus-onetsi zuen.

III. Horrela, eta legez ezarritako prozesuak eta izapideak betez, 2007ko maiatzaren 23an Fomento de San Sebastián, SAk lurreko uhinen bidezko tokiko telebista-zerbitzua kudeaketa zuzeneko araubidean emateko emakida – borondatezko hobekuntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Prozesu hori Telekomunikazioen eta Informazio Gizartearen Estatu Idazkaritzaren aldeko ebazpenarekin amaitu zen. Horren bidez, irrati-maiztasunen jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzeko emakida ematen zen, tokiko telebista digitalaren zerbitzua, DGSS-0800469 erreferentziakoa, emateko. Ebazpen horrek ezartzen zuenez, jabari publikoa erreserbatzeagatiko urteko TASA ordaindu behar zen, kontraprestazio gisa.

IV. 2010eko ekainaren 17an, Fomento de San Sebastián, SAk, erreferentziako emakidaren kudeatzailea izaki zegozkion eskumenak baliaturik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari eskatu zion aipatu emakida lizentzia bihurtzea, eta zegokion erregistroan inskripzioa egitea.

V. 2010eko maiatzaren 1ean indarrean sartu zen 7/2010 Legea, martxoaren 31koa, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Orokorra, 2010eko apirilaren 1ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua. Horren bitartez aldatu egin

como los servicios prestados por el Ayuntamiento.

II. Que el 14 de febrero de 2007, durante el Pleno del Excelentísimo Ayuntamiento de San Sebastián, reunido en Sesión Ordinaria, Fomento de San Sebastián, S.A., solicitó la Gestión directa del canal de televisión digital local dentro del múltiple digital 23 identificado con la referencia TL04SS, recibiendo certificado de “Aprobación de la gestión directa del canal de televisión digital local” que fue emitido por el Secretario General del Ayuntamiento para posteriormente, ser visado por Alcaldía en fecha 28 de febrero de 2007.

III. De este modo y en cumplimiento de los procesos y trámites legalmente establecidos, el día 23 de mayo de 2007, fomento de san sebastián, s.a., solicitó al gobierno vasco la correspondiente concesión para la prestación del servicio de televisión local por ondas terrestres en regimen de gestión directa – mejora voluntaria, culminando el citado proceso con la resolución favorable de la secretaría de estado de telecomunicaciones y para la sociedad de la información, a través de la cual se otorgaba la concesión demanial para el uso privativo del dominio público radioeléctrico, para la prestación del servicio de televisión digital local, referencia: dgss-0800469. Dicha resolución establece como contraprestación el pago anual de la TASA por reserva del dominio público.

IV. Que en fecha 17 de junio de 2010, Fomento de San Sebastián, S.A., en el ejercicio de sus competencias como gestora de la Concesión de referencia, solicitó al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco la transformación en Licencia de la citada Concesión, con la consiguiente inscripción en el Registro correspondiente.

V. Que el día 1 de mayo de 2010, entró en vigor la Ley 7/2010, de 31 de marzo, General de la Comunicación Audiovisual, publicada en el Boletín Oficial del Estado el día 1 de abril de 2010, y a través de la cual se modificaba el criterio seguido hasta

zen ordura arte jarraitutako irizpidea, ezarriz ezen, aurrerantzean, partikularrek emandako ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak ez zirela zerbitzu publikoak izango, baizik eta konkurrentzia libreko araubidean emandako interes orokorreko zerbitzutzat hartuko zirela, irratimaiztasunen mugekin eta herritarren interesak babestuta.

VI. Horretaz guztiaz gain, 2010eko azaroaren 2an Eusko Jaurlaritzako Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendariaren erantzuna jaso zen. Horren bitartez ebazpena eman zuen, eta horren indarrez ez zuen izapidetzeko onartzen ebazpenaren beraren I. eranskinean jasotako emaile publikoek aurkeztutako eskaera, Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuaren emakidak eraldatzekoa; emaile publiko horien artean zegoen Donostiako Udala bera.

VII. Une horretan, eta gertatuak aintzat harturik, Fomento de San Sebastián, SAk irratimaiztasunen jabari publikoaren emakidaren baja eskaera izapidetu zuen, DGSS-0800469 erreferentziako tasarenarekin batera, Gipuzkoako Telekomunikazioen Ikuskaritzako Probintzia Buruzagitzarekin. Eskatua ukatu egin zioten, hain zuzen ere baja emateko aurrez baja eman behar zitzaiolako Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Hedabideen Kabinetearen bitartez izapidetutako TL04SS erreferentziari.

VIII. Une horretan babesgabetasun eta blokeo egoera bat sortu zen Fomento de San Sebastián, SA sozietatearentzat, erakunde biek beste administrazioaren aldez aurretiko izapide bat eskatzen baitzuten. Konpondu ezineko egoera zen, harik eta 2021eko urriaren 21ean, Eusko Jaurlaritzaren Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza Fomento de San Sebastián, SArekin harremanetan jarri zen arte, hain zuzen uko egiteko izapideak gauzatu ahal izateko, aldez aurretik Donostiako Udalaren osoko

la fecha y se estipulaba que, en adelante, los servicios de comunicación audiovisual prestados por particulares no adquirirían la calificación de servicios públicos, sino que serían considerados como servicios de interés general que se prestan en régimen de libre competencia, con las limitaciones del espectro radioeléctrico y la protección de los intereses de los ciudadanos.

VI. Que habida cuenta de lo anterior, el día 2 de noviembre de 2010, se recibió respuesta por parte del Director de Gabinete y Medios de Comunicación Social de Gobierno Vasco a través de la cual, emitía Resolución por la que inadmitía a trámite la Solicitud de transformación de las concesiones del Servicio de Comunicación Audiovisual presentadas por los prestadores públicos recogidos en el Anexo I de la citada Resolución, entre los que se encontraba el Excelentísimo Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

VII. Que en ese momento y atendiendo a los hechos acontecidos, Fomento de San Sebastián, S.A., tramitó la solicitud de baja de la Concesión de Dominio Público radioeléctrico, así como la correspondiente tasa de referencia DGSS-0800469, a la Jefatura Provincial de Inspección de Telecomunicaciones de Gipuzkoa, resultando denegada debido a que la baja se realizará previa baja de la referencia TL04SS, tramitada a través del Gabinete de Medios de Comunicación Social del Gobierno Vasco.

VIII. Que en ese momento, se generó una situación de indefensión y bloqueo para la Sociedad Fomento de San Sebastián, S.A., dado que los dos entes solicitaban un trámite previo por parte de la otra administración, generando una situación de imposible resolución hasta el pasado 21 de octubre de 2021, fecha en la la Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social de Gobierno Vasco, contactó con Fomento de San Sebastián, S.A., a fin de poder tramitar la correspondiente renuncia previo Acuerdo en sesión plenaria del Ex-

bilkuran erabakia hartuz gero (erantsirik doa aurreko aurrekarietan deskribatutako gertaerak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia).

Horregatik guztiagatik, udalbatzari proposatzen zaio honako hauek onartzea:

E R A B A K I A K

LEHENENGOA ETA BAKARRA.- onartzea uko egitea 2008ko urriaren 3an telekomunikazioen estatu idazkaritzak donostiako udalaren alde emandako jabari publiko erradioelektrikoari, tl04ss erreferentzia duen tokiko telebista digitalaren kanalaren zuzeneko kudeaketa onartzen zuen 2007ko maiatzaren 14ko osoko bilkuraren erabakia oinarri hartuta egindako eskaerari dagokiona.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 31

celentísimo Ayuntamiento de San Sebastián (se adjunta copia de la documentación acreditativa de los hechos descritos en los antecedentes anteriores).

Por todo lo anteriormente expuesto, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción de los siguientes:

A C U E R D O S

PRIMERO Y ÚNICO.- Aprobar la renuncia a la Concesión del dominio público radioeléctrico otorgada a favor del Excelentísimo Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, por la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones el 3 de octubre de 2008, con relación a la solicitud realizada en base al acuerdo del Pleno de 14 de mayo de 2007, por el que se aprobaba la gestión directa del canal de televisión digital local con la referencia TL04SS.

San Sebastián, a 31 de enero de 2022

DONOSTIA SUSTAPENEKO GERENTEA
GERENTE DE FOMENTO DE SAN SEBASTIAN
Euken Sesé Sarasti.

ONTZAT EMANA
EKOLOGIAKO, OSASUN PUBLIKOKO, GARAPEN EKONOMIKOKO ETA ENPLEGUKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

CONCEJALA DELEGADA DE ECOLOGÍA, SALUD PÚBLICA, DESARROLLO ECONÓMICO Y EMPLEO
Marisol Garmendia Beloki”

Eztabaida hasita, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Reyes Carrere Zabala andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Reyes Carrere Zabala, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**

**AHO BATEZ.**

**UNANIMIDAD.**

---------------

**ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEA**

**9. Bigarren lanpostua betetzeko bateraezintasuna aitortzea.**

“UDALBATZARI

Karrerako funtzionario den Mikel Sainz de Baranda Aramendi, 2021/11/29ko aurkeztutako idatziaren bidez, sektore pribatuan IRMU SA enpresan administrari lanak egiteko bateragarritasuna ESKATZEN DU.

Arlo pribatuan administrari lanetan aritzea jarduera pribatutzat jo behar da. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunen Araubideari buruzko 53/1984 Legeak, abenduaren 26koak, honela dio 14.1. artikuluan: “Herri administrazioetatik kanpo lanbide, lan, merkataritza edo industria arloko jardueraren bat egin nahi izanez gero, bateragarritasuna onartu behar da aurrez”.

Era berean, jarduera publiko eta pribatuei buruzko xedapen amankomunen artean, 16. artikuluak dio:

“1. 1. Estatutu honen 24. artikuluaren b) apartatuan adierazitako lansari osagarriek bateraezintasun faktorea jasotzen badute, muga zergaren bidez ordaintzen zaien langileei eta zuzendaritza pertsonalari, egoera berezia duen goi mailako zuzendaritzako lan harremana barne, ezin izango zaie bateragarritasuna onartu edo aitortu ez funtzionarioei, ez aldi baterako langileei, ezta

**COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES**

**9. Acordar el no reconocimiento de compatibilidad para desarrollar un segundo puesto de trabajo.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

El funcionario de carrera Mikel Sainz de Baranda Aramendi, mediante escrito presentado el 29/11/2021, SOLICITA compatibilidad para poder ejercer funciones de administrador en la empresa IRMU SA, de ámbito privado.

El ejercicio de administrar una empresa supone el ejercicio de una actividad privada. El artículo 14.1 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al servicio de las Administraciones Públicas establece que “el ejercicio de actividades profesionales, laborales mercantiles o industriales fuera de las Administraciones Públicas requerirá el previo reconocimiento de compatibilidad.”

A su vez, en las disposiciones comunes a las actividades públicas y privadas, el artículo 16 establece:

“1. No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad al personal funcionario, al personal eventual y al personal laboral cuando las retribuciones complementarias que tengan derecho a percibir del apartado b) del artículo 24 del presente Estatuto incluyan el factor de incompatibilidad al retribuido por arancel y al personal directivo, incluido el sujeto a la relación laboral de carácter especial de alta dirección”.

lan kontratua duten langileei ere”.

1 Apartatu honen azken eguneratzea urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegintzakoaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen Testu bateginaren 3. azken xedapenaren bidez sartu zen, eta eragina izango du, Administrazio Publiko bakoitzean III. Tituluaren III. Kapitulua indarrean sartzen denean, Estatutu honen garapenean ematen diren Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Legeak onesten direnean, bere 4. azken xedapenaren arabera.

Esta última actualización de este apartado 1 establecida por la Disposición Final Tercera del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, producirá efectos en cada Administración Pública a partir de la entrada en vigor del capitulo III del Título III con la aprobación de las leyes de Función Pública de las Administraciones Públicas que se dicten en desarrollo de este Estatuto, según establece su disposición final 4.

Oinarrizko Estatutuaren garatzen duen Funtzio Publikoaren Lege berririk ez denez onartu, indarrean jarraitzen du uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legea, eta 16.1 aurreko idazkera aplikatu behar da:

Dado que sigue en vigor la Ley de la Función Pública Vasca 6/1989, de 6 de julio, al no haberse aprobado nueva ley de Función Pública en desarrollo del citado Estatuto Básico, resulta de aplicación la redacción anterior del artículo 16.1:

“1. Muga zergaren bidez ordaintzen zaien langileei eta osagarri berezi edo parekagarria duten lanpostuak betetzen dituzten langileei ezin izango zaie bateragarritasuna onartu edo aitortu”.

“No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad alguna al personal que desempeñe puestos que comporten la percepción de complementos específicos o concepto equiparable, y al retribuido por arancel”.

Bestalde, artikulu berberaren laugarren puntua salbuespen bat ezartzen du bateragarritasuna eskuratu ahal izateko: “...jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasuna onartu ahal izango da, baldin eta betetzen duen lanpostuaren berariazko osagarria jasotzen duen oinarrizko lansariaren %30a gainditzen ez badu, antzinatasunagatiko kontzeptuak kontuan hartu gabe”. Kasu honetan, eskatzaileak urteko 28.590,08 euroko berariazko osagarria dauka esleituta. Modu horretan, soberan gainditzen du legeak ezartzen duen oinarrizko soldatarekiko %30a (urteko 11.037,88 euro), eta ezin izango du jarduera pribatuan lan egiteko bateragarritasuna eskuratu.

Por otro lado, en el apartado cuarto del mismo artículo se establece como excepción que “...podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos, o concepto equiparable, cuya cuantía no supere el 30 por 100 de su retribución básica, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad”. El solicitante tiene asignado un complemento específico de 28.590,08 euros anuales, lo que supera ampliamente el límite de 30% establecido sobre el sueldo base (11.037,88 euros anuales) para poder obtener la compatibilidad entre la actividad pública y la privada.

Abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 14.

De conformidad con lo dispuesto en el articulo 14

artikuluak ezarritakoaren arabera, arlo pribatuan bigarren lanpostua betetzeko bateragarritasun baimena edo bateraezintasunaren aitorpena Udalbatzak eman beharko du.

Aurrean ezarritako guztia kontuan hartuz, egokitzat jotzen da Udalbatza honi ondoko akordioa hartzea proposatzea:

Karrerako funtzionarioa den Mikel Sainz de Baranda Aramendi jaunari arlo pribatuan bigarren lanpostua betetzeko bateraezintasuna aitortzea, abenduaren 26ko Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasuna arautzen duen 53/1984 Legean ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

de la misma Ley 53/1984, de 26 de diciembre, la autorización de compatibilidad o declaración de incompatibilidad para un segundo puesto en el sector privado corresponde al Pleno de la Corporación Local.

Por cuanto antecede, se tiene a bien proponer al Excmo. Ayuntamiento Pleno, la adopción del siguiente acuerdo:

No reconocer la compatibilidad al funcionario de carrera Don Mikel Sainz de Baranda Aramendi para desarrollar un segundo puesto de trabajo en el sector privado como autónomo, por no cumplirse los requisitos establecidos en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

Donostian, sinaduraren datan

GOBERNANTZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

LANGILERIA KUDEATZEKO ETA ADMINISTRATZEKO ZERBITZUAREN BURUA”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**10. Proposamena, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Batzorde ez-iraunkor bat sortzeko, osoko bilkurako akordioak betetzen direla kontrolatzeko eta jarraipena egiteko.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 90., 91. eta 148. artikuluek ematen duten babesa aintzakotzat hartu eta udalbatzaren osoko bilkuran hartutako

**10. Proposición, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, para la creación de una Comisión No Permanente sobre el control y seguimiento del cumplimiento de los acuerdos plenarios.**

“Aitzole Araneta Zinkunegi, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo de los artículos 90, 91 y 148 del reglamento orgánico del pleno, presenta la siguiente propuesta relativa a la creación de una comisión no permanente para el

erabakiak betetzen diren kontrolatzeko eta jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkorra sortzeko proposamena aurkeztu du.

JUSTIFIKAZIOA

Oposizioko taldeek Udal Gobernuaren ekintza kontrolatzea eta fiskalizatzea funtsezko egikizunak dira udal demokraziak kalitate ona izango badu. Herritarren parte handi bat ordezkatzen dugu, eta tresna hori dugu hiriaren egunero jardunean aurkezten diren herritarren aldarrikapenak helarazteko.

Hiriaren pluraltasuna ordezkatzen duen hiriko hainbat elkarte eta kolektiboren bozgorailu gisa jarduten dugu Udalbatzaren Osoko Bilkuran; izan ere, hura baita organo gorena, herritarrek hautestontzien bidez adierazitako borondatea ordezkatzen duena eta Donostiako herritarren aniztasuna eta dibertsitatea islatzen duena. Oposizioko taldeen proposamenak mozio bihurtzen dira, eta, horien bidez, hiriko elkarte eta kolektiboen ahotsak entzun eta egiten dituzten aldarrikapenei kasu egiteko eskatzen da. Hala, Udalbatzan erabakiak hartzea udal taldeok daukagun modu bat da, modu legitimoa, adostasunera iristeko eta herritarren bizimodua hobetzeko. Mozioak ez dira juridikoki lotesleak. Baina, Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako konpromiso horiek irmoak eta betetzeko modukoak izan behar dute, korporazioaren izaera demokratikoa bermatzeko, herritarren gehiengoaren borondatea adierazten dute eta. Hala ere, mozioak onartzeak ez dakar, gehienetan, mozio horiek aurrera eramatea, eta eztabaida dialektikoak besterik ez dira izaten azkenean.

Hala, guretzat ezinbestekoa Udalbatzaren Osoko Bilkuran hartuta erabaki horiek betetzea

control y seguimiento del cumplimiento de los acuerdos plenarios.

JUSTIFICACIÓN

Las funciones de control y fiscalización por parte de los grupos de la oposición a la acción del Gobierno Municipal son parte fundamental en el ejercicio de garantizar la calidad de la democracia municipal. Representamos a una parte muy importante de la ciudadanía y contamos con este instrumento para asi trasladar las reivindicaciones de la ciudadanía que se presentan en el día a día de la ciudad .

Nuestra función como altavoz de diferentes asociaciones, colectivos de la ciudad que representan la pluralidad es llevada al Pleno , máximo órgano que representa la voluntad de los ciudadanos a través de las urnas y que refleja la pluralidad y diversidad de la ciudadanía donostiarra. Las propuestas de los grupos de la oposición son transformadas en mociones, a través de las cuales las voces de diferentes Asociaciones, colectivos de la ciudad son escuchadas para que sus reivindicaciones sean atendidas. Es por ello, que los acuerdos plenarios son una forma legítima que tenemos los Grupos municipales para alcanzar un consenso y mejorar la vida de los ciudadanos. Las mociones no son vinculantes jurídicamente hablando. Sin embargo estos compromisos adquiridos por el Pleno deben ser firmes y susceptibles de ser cumplidos para garantizar el carácter democrático de la Corporación, puesto que representan la voluntad de la mayoría de la ciudadanía. Sin embargo la aprobación de las mociones no conlleva, en buena parte de los casos ,la materialización de las mismas, viéndose reducidas estas a un legítimo debate dialéctico.

Consideramos imprescindible constituir una Comisión que vele por el cumplimiento de estos

begiratuko duen batzorde bat eratzea. Batzorde horren xedea zera izango litzateke: Osoko Bilkuran onartutako akordio eta legegintzaldi honetan onartutako mozio guztiak begiratzea eta gehiengoz edo aho batez onartutakoak betearaztea. Era berean, batzorde horrek txosten bat egin eta onartutako mozioen betetze-maila zehaztuko luke, eta xehe-mehe azaldu han mozio horiek aurrera eraman diren eta horretarako zer egin den, eta aurrera eraman ez direnak zer arrazoi politiko, tekniko edo bestelakogatik eraman ez diren.

Horrenbestez, bada, udalbatzaren osoko bilkuran hartutako erabakiak betetzen diren kontrolatzeko eta jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkorra sortzea proposatzen du elkarrekin donostiak, eduki hau izango lukeen batzordea:

- Helburua: Udalbatzaren Osoko Bilkurak legegintzaldiaren hasieratik onartutako erabaki guztiak berriz begiratzea eta gehiengoz edo aho batez onartutakoak betearaztea. Txosten bat egitea, osoko bilkuretan hartutako erabakien, mozioen, betetze-maila zehazteko, eta xehe-mehe adieraztea han bete direnak, bete ez direnak eta zergatik bete ez diren bete ez direnak.

- Osaera: Udal talde bakoitzeko bat

- Iraupena: Legegintzaldia amaitu arte

- Bilerak: Bi hilean behin.

Donostia, 2022ko martxoaren 4a

Sinatua: Aitzole Araneta Zinkunegi
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.”

acuerdos Plenarios. Esta Comisión tendría por objeto revisar todas los acuerdos plenarios aprobados, mociones aprobadas en la actual legislatura y hacer cumplir dichos acuerdos aprobados por mayoría en el Pleno o por unanimidad. Así mismo en el seno de esta Comisión se realizaría un informe que detallara el grado de cumplimiento de las mociones aprobadas explicando de manera pormenorizada la ejecución de las mismas, actuaciones realizadas y las que no han sido ejecutadas explicando las motivaciones políticas, técnicas, etc...que han originado dichas acciones.

Por todo ello, elkarrekin donostia propone la creación de una comisión no permanente para el control y seguimiento del cumplimiento de los acuerdos plenarios, con el siguiente contenido:

- Objeto: revisar todas los acuerdos plenarios aprobados desde el comienzo de la legislatura y ejecutar dichos acuerdos aprobados por mayoría o unanimidad en Pleno. Realizar un informe que detalle el grado de cumplimiento de los acuerdos plenarios, mociones especificando de manera pormenorizada la ejecución de estos, las que no han sido ejecutadas y los motivos de tal hecho.

- Composición: Un miembro por cada Grupo Municipal

- Duración : Hasta el fin de la legislatura

- Régimen de reuniones: Cada dos meses.

Donostia, a 4 de marzo de 2022

Fdo.: Aitzole Araneta Zinkunegi
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia.”

Eztabaida hasita, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Ane Oyarbide Ochoa, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

## KONTRATAZIOAREN KONTROLA ETA JARRAIPENERAKO BATZORDE BEREZIA

**11. 2021eko ekitaldiari dagokion oroitidazkiaren berri ematea.**

“UDALBATZARI

Udalbatzaren Organo Araudiko IX. Tituluak eta, bereziki, VI. Kapituluak arautzen dute Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia.

Batzorde berezi hori dugu udal Administrazio osoaren kontratu bidezko jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko organoa, hau da, barne hartzen ditu Udala bera, erakunde autonomoak, udalaren enpresa erakunde guztiak eta osorik udalarenak diren baltzu publikoak, eta helburu du kontratazioan

## COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN

**11. Dar cuenta de la Memoria correspondiente al ejercicio 2021.**

“AL EXCMO. AYUNTAMIENTO PLENO

El Reglamento Orgánico del Pleno regula en su Titulo IX las Comisiones del Pleno y de modo especifico en el Capítulo VI la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación.

La Comisión Especial es el Órgano de control y vigilancia de la actividad contractual de toda la Administración Municipal, es decir, Ayuntamiento, Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas y tiene por finalidad garantizar la publicidad, libre concurrencia, objetividad, transparencia y eficacia

publizitatea, lehia mugagabea, objektibotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea.

Batzordeak Udalbatzari jardueren urteko Oroitidazkia bidali behar dio.

Batzordeak 2008ko otsailaren 5eko bilkuran legealdi osorako funtzionamendu arauak onartu zituen, eta urteko oroitidazkiari dagokionez, edukia, aldizkakotasuna, lanketa eta izapidetzea.

Aipatu arauen ondorioz, batzordeburuak oroitidazkia onarkizun bidaliko dio Batzordeari dokumentuak jasotzen duenaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

Batzordeak onarturiko oroitidazkiaren jakitun jarriko dute Donostiako Gobernu Batzarra.

Oroitidazkia; eta halakorik egonez gero, gogoetak eta hobetze proposamenak; Udalbatzari bidaliko diote, jakitun jartzeko asmoz.

Batzordeak 2022ko martxoaren 9ko bilkuran 2021eko Ekitaldiko Oroitidazkia onartu zuen, osagai dituela aipatu ekitaldian kontrolaturiko kontratuen analisia.

Aipatu oroitidazkiaren jakitun jarri dute Donostiako Gobernu Batzarra 2022ko martxoaren 22an izandako bilkuran.

Horiek horrela direla,

“Donostiako Udalbatza 2021eko Ekitaldiko Oroitidazkiaren jakitun dago; Udalak, erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta udalaren baltzu publikoek eratzen duten Tokiko Sektorearen Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Donostiako Udalaren

de la contratación.

La Comisión debe elevar al Ayuntamiento Pleno una Memoria anual de sus actividades.

La Comisión, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2008, aprobó sus Normas de Funcionamiento para toda la Legislatura y en relación con la Memoria Anual su contenido, periodicidad, elaboración y tramitación.

De conformidad con dichas Normas, el Presidente elevará la Memoria, para su aprobación, a la Comisión dentro del primer trimestre del ejercicio siguiente al que se refiere.

**UNANIMIDAD.**

**2. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, hiriko zaintza lanen sektoreari buruzkoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa otsailaren 14an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko ekainean, hainbat eragile sozialek (ASADE elkartea, Elkartu, Mara-Mara elkartea, Bidez Bide, Gautena, Arrats, LAGAEL, Plazandreok, Haurralde, Donostiako Emakumeen Etxea eta Sos Arrazakeriako etxeko langileen kolektiboak) zaintzen eredu publiko baten alde lan egiteko eskaera egin zioten Udal Gobernuari, Zaintzaren Kontseilu Sektorial baten sorrera proposatuz.

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el sector de los cuidados de la ciudad.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción de control trae causa de la interpelación sustanciada el 14 de febrero de 2022 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

En junio de 2021 diversos agentes sociales (ASADE, Elkartu, Mara-Mara, Bidez Bide, Gautena, Arrats, LAGAEL, Plazandreok, Haurralde, Casa de las Mujeres de San Sebastián y los colectivos de trabajadoras del hogar de SOS Racismo) solicitaron al Gobierno municipal que trabajara a favor de un modelo público de cuidados. Asimismo, propusieron la creación de un Consejo Sectorial de Cuidados.

Kontseilu horren helburua honako hau izango litzateke: zaintza behar etengabeak dituen gizarte honetan, hiri kontratu bat sinatzea, zaintza merkatuaren eta gizartearen arteko erantzukizun partekatuko gaitzat hartuta, baina baita etxe barruko gizon eta emakumeen artekotzat ere.

El objetivo de este consejo es, en el contexto de una sociedad con continuas necesidades de cuidado, suscribir un contrato de ciudad, en el que el cuidado sea una cuestión de responsabilidad compartida entre el mercado y la sociedad, pero también entre hombres y mujeres dentro del hogar.

2021eko uztaileko batzordeetan Parte-hartzeko delegatua interpelatu genuen eragileek egindako eskaerari dagokionez, eta haren erantzuna izan zen eskaera Berdintasun Sailera bideratu zela eta Udal Gobernuak ez zuela iritzirik zaintzaren kontseilua sortzearen inguruan, erabakia Berdintasun zinegotziaren esku utziz. Aldiz, batzorde berean, Berdintasuneko delegatuak gai beraren inguruan galderak erantzun zituen eta adierazi zuen kontseiluaren eraketa bultzatzea ez zela departamentuaren ardura.

En las comisiones de pleno celebradas en julio de 2021 interpelamos a la delegada de Participación sobre la solicitud presentada por estos agentes. La concejala delegada respondió que dicha solicitud fue trasladada al Negociado de Igualdad y que el Gobierno municipal no tenía opinión sobre la creación del Consejo de Cuidados. Así, dejaba la decisión en manos de la concejala de Igualdad. Sin embargo, en la misma comisión, la delegada de Igualdad contestó a las preguntas planteadas sobre el mismo tema, y señaló que impulsar la constitución del consejo no era responsabilidad de su departamento.

Udal Gobernuak gaiarekiko zuen utzikeria ikusita, 2021eko uztaileko eta iraileko udalbatzarretara, Zaintza Kontseilua eratzeko kontrol mozioa eta arau proposamena aurkeztu genituen; bi kasuetan, Udal Gobernua osatzen duten bi taldeek aurkako bozka eman zuten. Eragileek egindako eskaeratik, zazpi hilabete pasatu ziren Udal Gobernuaren erantzunik jaso gabe eta, azkenean, udal talde honek eskatuta, gobernuak idatzizko ezezko erantzuna helarazi zien.

Ante la dejadez mostrada por el Gobierno municipal con respecto a esta cuestión, nuestro grupo presentó en los plenos municipales de julio y septiembre de 2021 una moción de control y una proposición normativa en relación con la constitución del Consejo de Cuidados. Los dos grupos que componen el Gobierno municipal votaron en contra. Transcurrieron siete meses desde la presentación de la solicitud por parte de los agentes sin que el Gobierno municipal diera una respuesta, y. finalmente, a petición de este grupo municipal, el Gobierno les hizo llegar una respuesta negativa por escrito.

Aurten, martxoaren 8aren atarian, mugimendu feministak, Emakundek eta gizartearen parte handi batek ozen salatu dute zaintza eredu publiko baten beharra eta sektore honetan genero desberdintasunekin amaitzeko neurrien beharra.

Este año, a las puertas del 8 de marzo, el movimiento feminista, Emakunde y buena parte de la sociedad han denunciado en voz alta la necesidad de un modelo público de cuidados y de medidas para acabar con las desigualdades de género en este sector.

Emakundek aurten aurkeztutako azkeneko zaintza ikerketan argazki hau baieztatu du[1]: enplegua duten euskal emakumeek gizonek baino askoz ere denbora gehiago eskaintzen diote adingabeak nahiz mendekoak zaintzeari. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek 5,1 ordu ematen dituzte egunean 15 urtetik beherako seme-alabak zaintzen; gizonek, aldiz, 3,3 ordu. Gizonek seme-alabak zaintzeko eszedentzien % 7,4 hartzen dituzte, eta mendekoak zaintzeko eszedentzien % 17,9. Horrenbestez, zaintza-lanak gizonen erantzukizunik eza dela-eta, emakume askorentzat oztopo bihurtzen dira profesionalki garatzeko, eremu publikoan parte hartzeko, aisialdiaz gozatzeko eta osasun ona edukitzeko orduan, eta, ondorioz, besteak beste, emakumeen laneko eskubideak eta gizarte-babeseko eskubideak murrizten dira.

Era berean, zaintza formalaren alorrean ere gabeziak nabariak dira. Gogora dezagun egun adinekoen egoitzetako langileek 260 egun baino gehiago daramatzatela greban, haien lan baldintzak hobetzeko, eta elkarteek etengabe salatzen dute etxeko langileen egoera zaurgarria, batez ere, pandemiaren testuinguruan. Hau da, nahiz eta zaintza formala izan, egoerak prekarioa izaten jarraitzen du eta zaintzan lan egiten duten profesionalen % 90 emakumezkoak dira berriro ere.

Gure taldeak behin eta berriro aurkeztu ditu zaintza eredu publiko eta duin baten aldeko proposamenak; esate baterako, hirian lan egiten duten 2.500 inguruko etxeko langileen baldintzak hobetzeko kontrol mozioak edo etxez etzeko laguntzako 400 profesionalen lan-baldintzak hobetzeko neurriak. Gehienetan, Udal Gobernuko bi taldeen ezetza izan dugu aurrean.

Emakunde confirma la siguiente situación en el último estudio sobre cuidados presentado este año[1]: (…) las mujeres vascas ocupadas dedican mucho más tiempo que los hombres al cuidado de menores y dependientes. Las mujeres que trabajan fuera de casa destinan 5,1 horas diarias al cuidado de los hijos e hijas menores de 15 años, mientras que los hombres emplean 3,3 horas diarias. Los hombres son el 7,4 % de las personas que se acogen a excedencias para el cuidado de hijas e hijos y un 17,9 % de las que lo hacen para el cuidado de personas dependientes. Esto hace que una actividad como el cuidado se convierta para muchas mujeres, por la falta de corresponsabilidad de los hombres, en un lastre para su desarrollo profesional, su participación en el ámbito público, su ocio y su salud, con la consiguiente merma, entre otros, de sus derechos laborales y de protección social.

Asimismo, se observan carencias en el ámbito de los cuidados formales. Recordemos que en la actualidad el personal de las residencias de personas mayores lleva más de 260 días en huelga para mejorar sus condiciones laborales y que las asociaciones denuncian constantemente la situación vulnerable de las personas empleadas de hogar, especialmente en el contexto de la pandemia. Es decir, también en el ámbito de los cuidados formales, la situación sigue siendo precaria y el 90 % de las personas que trabajan en el sector de los cuidados son mujeres.

Nuestro grupo ha presentado en numerosas ocasiones propuestas a favor de un modelo de cuidados público y digno, mediante mociones de control para mejorar las condiciones de unas 2.500 trabajadoras del hogar de San Sebastián o medidas para mejorar las condiciones laborales de 400 profesionales de ayuda domiciliaria. En la mayoría de los casos hemos obtenido la negativa de los dos grupos que conforman el Gobierno municipal.

Era berean, Udaleko Zainketen Talde Motorrak honako hau eskatu die EAEko erakundeetako gobernuei (Donostiako Udala barne):

• Berdintasun erreala eta eraginkorra eta emakumezkoek herritar gisa ditugun eskubideak bermatzea.

• Istanbulgo Hitzarmenari dagokionez (Europako Kontseiluaren hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartu eta haren kontra borrokatzeari buruzkoa), behar diren arau-aldaketak egitea.

• Etxeko langileen Araubide Berezia indargabetzea, eta behar diren neurri guztiak behingoz ezartzea, zainketak modu duinean egin daitezen, bai jasotzen dituztenentzat, bai egiten dituztenentzat.

• Zainketen sektorean ordaindu gabeko lanak amaitzea, emakumeek egin dituzten etxeko lan aitortu eta gutxietsiak ikusezin bihurtzen jarraitzeko bakarrik balio baitute.

Berdintasun delegatuak otsaileko batzordeetan adierazi digu bat egiten duela eskaera hauekin baina, praktikan, ez dugu ikusten lan eta konpromiso hauek bultzatzeko eta zaintza sektorearekin konpartitzeko espaziorik Udalean.

Aitzitik, badira Gipuzkoan zaintza ereduari buruzko prozesuak martxan jarri dituzten udalak oso ondorio positiboekin; zaintzaile profesionalak (zentroetan zein etxe partikularretan lan egiten dutenak), familiako zaintzaileak, zaintza lanak egiten dituzten enpresak, komunitatearen ordezkariak, zaintza zerbitzuetako erabiltzeak, talde feministak eta erakundeetako ordezkariak (udal ordezkari tekniko zein politikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta Matia Fundaziokoak)

Asimismo, el Grupo Motor de Cuidados del Ayuntamiento ha solicitado lo siguiente a los gobiernos de las instituciones vascas (incluido el Ayuntamiento de San Sebastián):

• Garantizar la igualdad real y efectiva, así como los derechos que asiste a las mujeres como ciudadanas.

• Realizar los cambios normativos necesarios en relación con el Convenio de Estambul (Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica).

• Derogar el Régimen Especial de Empleadas de Hogar, y establecer, de una vez, todas las medidas necesarias para que los cuidados se lleven a cabo de forma digna, tanto para quienes los reciben como para quienes los proporcionan.

• Acabar con los trabajos no remunerados en el sector de los cuidados, que solo sirven para seguir invisibilizando las tareas domésticas reconocidas e infravaloradas que realizan las mujeres.

En las comisiones de febrero, la delegada de Igualdad ha señalado que se suma a estas peticiones. Sin embargo, en la práctica, no vemos espacios en el Ayuntamiento para impulsar estos trabajos y compromisos y compartirlos con el sector de cuidados.

Por el contrario, en Gipuzkoa hay ayuntamientos que han puesto en marcha procesos sobre el modelo de cuidados con efectos muy positivos. Y es que estos procesos han unido a cuidadoras profesionales (tanto a las que trabajan en centros como en domicilios particulares), a cuidadoras familiares, a empresas que realizan tareas de cuidado, a representantes de la comunidad, a personas usuarias de los servicios de cuidados, a grupos feministas y a representantes institucionales (representación técnica y política del Ayuntamiento,

batu dituztenak.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko zaintza sektorearen inguruko azterketa bat egin dezala Donostia Sustapenarekin batera, beste lan sektore batzuekin egiten duen bezala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko zaintza eredua hobetzeari buruzko prozesu bat egin dezala, sektorean inplikatutako eragile guztiekin eta Udaleko Zainketen Talde Motorrarekin.

Donostian, 2022ko martxoaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

1. https://www.emakunde.euskadi.eus/gizoneus/-/gizonduz-covid19/

representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la Fundación Matia).

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación que acabamos de exponer, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un estudio sobre el sector de cuidados de la ciudad junto con Fomento de San Sebastián, al igual que hace con otros sectores laborales.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un proceso sobre la mejora del modelo de cuidados en la ciudad, con todos los agentes implicados en el sector y con el Grupo Motor de Cuidados del Ayuntamiento.

En San Sebastián, a 17 de marzo de 2022

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

1. https://www.emakunde.euskadi.eus/gizoneus/-/gizonduz-covid19/

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Olaia Duarte López, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3)**

**ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko hiriguneetan aparkatutako autokarabanei buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO aurkeztu behar dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hiriko gune urbanoetan aparkatutako autokarabanez aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hemen da udaberria eta aurten ere konpondu gabe segitzen dugu hiriko auzo askotan behin eta berriz izaten den arazo bat: autokarabanena. Berioko, Antiguako, Ondarretako eta Mirakontxako bizilagunek urteak daramatzate hiriaren erdi-erdian kanpatzen dutenek sortzen dituzten arazoez kexatzen. Izan ere, lo, jana prestatu, jan, ur grisak hustu, arropa zabaldu, autoetan lo egin eta bizi, dena kalean egiten du zenbaitek.

Ez dago eusterik abelera horri, eta Udala ez da gauza, beste behin ere, jokabide horri atzera eginarazteko.

Beste hiri batzuek ere badituzte antzeko arazoak, baina erantzukizunez arautzen dituzte, saihestu ahal izateko. Hala egiten du Jacak, konparazio baterako, galarazi egiten baitu

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre las autocaravanas aparcadas en zonas urbanas de la ciudad.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular,al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la INTERPELACIÓN presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre las autocaravanas aparcadas en zonas urbanas de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Se acerca la primavera y un año más tarde seguimos sin solucionar un problema recurrente en algunos barrios de la ciudad: las autocaravanas. Los vecinos de Berio, el Antiguo, Ondarreta y Miraconcha, llevan años quejándose de los problemas que causan los campistas que acampan en medio de la ciudad. Duermen, cocinan, comen, evacúan aguas grises, tienden la ropa, duermen en sus coches y viven en la calle.

Es una situación insostenible y el Ayuntamiento, una vez más, se muestra incapaz de poner coto a esta práctica.

Otras ciudades tienen problemas similares, pero legislan con responsabilidad para evitarlos. Es el caso de Jaca, que prohibe el estacionamiento de autocaravanas en la ciudad.

autokarabanak hirian aparkatzea.

Pentsatuko al luke inork Bartzelonako Katalunia Plazan edo Madrilgo Alcalá Atean kanpatzea? Zergatik onartzen dugu guk, normal-normal, Ondarretan, Berion, Mirakontxan, Antiguan, Saguesen edo Katalunia plazaren inguruan kanpatu ahal izatea?

¿A alguien se le ocurriría acampar en la Plaza de Cataluña de Barcelona o en la Puerta de Alcalá de Madrid?. ¿Porque asumimos con normalidad que se pueda acampar en Ondarreta, Berio, Miraconcha, el Antiguo, Sagüés o el entorno de la Plaza Cataluña?

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo lo anterior presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio ordenantza bat egiteko, galarazteko Donostian kanpatzea eta Barne Ministerioaren 08/V-74 Instrukzioak jartzen dituen tokietan aparkatzea.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a elaborar una ordenanza que prohiba la acampada en la ciudad de San Sebastián, y el estacionamiento dentro de los márgenes que le permite la instrucción Instrucción 08/V-74 del Ministerio del Interior.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio egokitzeko autokarabanak aparkatzeko toki batzuk, donostiarrei eragozpenik eragiten ez dieten lekuetan.

2. El pleno del ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a acondicionar aparcamientos para autocaravanas en lugares en los que no causen molestias a los donostiarras.

Donostian 2022ko martxoaren 17an

En San Sebastián, a 17 de marzo de 2022

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostiako kaleetako argiztapenari buruz.**

“Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldiak, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO dakar, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Donostiako kaleetako argiaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la iluminación en las calles de San Sebastián.**

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbano, iluminación en las calles de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

Hogeita hamabi mila (32.000) farola baino gehiago dira Donostian kaleak argitzeko. Energia aurrezteko asmoz, kaleko faroletako bonbila zaharrak kendu eta led-ak jartzen aritu da Udala 2017. urtean hasita. Aldaketa horiek eginda daude, besteak beste, Mandasko Dukearen pasealekuan, Lugaritz pasealekuan, Bidebieta auzoan eta Igara inguruan.

San Sebastián cuenta con más de 32.000 farolas para iluminar sus calles. El Ayuntamiento, con el objetivo del ahorro energético de San Sebastián, ha ido renovando el alumbrado público desde el año 2017, sustituyendo las actuales luminarias por farolas con lámparas LED. Estos cambios ya están acometidos en zonas como el Paseo del Duque de Mandas, Paseo de Lugaritz, barrio de Bidebieta y zona de Igara, entre otras.

Gure udal taldea energia aurreztearen alde dago erabat, baina herritar askok adierazi digu haserre dagoela kale batzuetan argi gutxi dagoelako: “Farola asko eta argi gutxi” esaten du donostiar askok, zenbait puntutan argi falta dagoela eta. Gobernu Taldearentzat, ordea, egokia da argiteria publikoak duen intentsitatea.

Desde nuestro grupo municipal estamos totalmente a favor de este ahorro energético, pero son muchos los ciudadanos, y así nos lo han trasmitido, que han mostrado su malestar por la escasa iluminación que hay en nuestras calles: “Muchas farolas y poca luz”, es la queja de muchos vecinos de San Sebastián que lamentan la insuficiente iluminación de determinados puntos de la ciudad. Sin embargo, el Equipo de Gobierno considera que la intensidad del alumbrado público es la adecuada.

Bestalde, askotan, zuhaitz-adarrez estalita izaten dira hiriko zenbait tokitako farolak, eta oraindik eta argi gutxiago ematen dute haiek, batez ere udaberrian eta udan, arbolak hostoz betetzen diren garaian. Gainera, hiriko leku askotan, zuhaitzak baino gorago daude farolen argiak.

A esto hay que sumar, que en muchas ocasiones y en varios puntos de la ciudad, las farolas están tapadas por las ramas de los árboles, lo que motiva que la iluminación sea aún más escasa, efecto que se da más en primavera y verano por la frondosidad de su follaje. Además, en muchos puntos de la ciudad, las farolas superan la altura del árbol.

Hori dela eta, hau da gure

Por estos motivos, presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio handitzeko kaleko argien intentsitatea.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a aumentar la intensidad de las luminarias de la ciudad.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio begiratzeko farolen inguruko zuhaitzak, argirik ez tapatzeko arbola-adarrek.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a revisar el arbolado situado junto a las luminarias para evitar que los mismos bloqueen los halos de luz.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio argi gehiago jartzeko argi gutxi dagoen tokietan, puntu beltzik edo segurtasunik falta irudipenik ez izateko jendeak.

Donostian 2022ko martxoaren 18an

Mikel Lezama Zubeldia
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia".

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a incrementar el número de luminarias en las zonas en las que se detecte falta de luz, para evitar puntos negros o que generen sensación de inseguridad en la ciudadanía.

En San Sebastián, a 18 de marzo de 2022

Mikel Lezama Zubeldia
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, hiriaren irisgarritasunari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO aurkeztu behar dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hiriaren irisgarritasunaren gainean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko urriaren 16an, kontrol mozio bat aurkeztu genuen, mugikortasun urriko pertsonek

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la accesibilidad en la ciudad.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular,al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la INTERPELACIÓN presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la accesibilidad en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

El 16 de octubre del 2019 presentamos una moción de control denunciando los impedimentos que

hirian batetik bestera ibiltzeko izaten dituzten eragozpenak salatzeko. Orduko eztabaida Antiguan zentratu genuen, baina hiri osoan dago arazoa. Era berean, irisgarritasun osoa bermatzeko hartu behar diren neurriak inplementatzeko kronograma bat jartzeko ere eskatu genuen guk orduan.

encuentran en la ciudad las personas con movilidad reducida. Centramos el debate en el ámbito de El Antiguo, pero el problema se da en toda la ciudad. Pedimos asimismo que se adoptara un cronograma temporal de implementación de las medidas que se debían tomar para garantizar la plena accesibilidad.

Osoko Bilkuran izan zen eztabaidan, gobernu taldeak hitz eman zuen hilabete baino lehen aurkeztuko zuela Irisgarritasun Unibertsalaren Plana.

Durante el debate en el Pleno, el equipo de gobierno se comprometió a presentar un Plan de Accesibilidad Universal en el plazo de un mes.

Oraindik, ordea, ez du ezeren Irisgarritasun Planik aurkeztu udal gobernuak, eta mugikortasun urriko donostiarrek lehengo arazo berberak dituzte orain ere. Zebra-bideen eta espaloien arteko koskek, adibidez, ez diete seguru ibiltzen uzten, eta ikusi ere ez da ia batere ikusten pasabide horietan alde batetik bestera pasatzekoan, Udalak oraindik ere utzi egiten duelako ibilgailuak pasabideen ezkerreko aldean aparkatzen.

A día de hoy el gobierno municipal todavía no ha presentado ningún Plan de Accesibilidad. Los donostiarras con movilidad reducida siguen encontrándose los mismos problemas. Las cotas de los pasos de cebra les impiden circular con seguridad, la visibilidad en los mismos es prácticamente nula al seguir permitiendo el ayuntamiento el estacionamiento de vehículos a la izquierda de los lugares de paso.

Bi urte baino gehiago pasatu diren arren, gurpil-aulkian ibiltzen diren donostiarrentzat errazagoa da oraindik ere bidegorrietatik ibiltzea espaloietatik ibiltzea baino.

Más de dos años después, sigue siendo más fácil para los donostiarras que utilizan silla de ruedas desplazarse por los bidegorris que por las aceras.

Urte hauetan ondo asko ikusi eta salatu dugu Gune Publiko eta Hiriko Proiektuetako saileko nahiz Hiri Mantentze saileko zinegotzien ekintza falta.

Durante estos años hemos conocido y denunciado la inacción de los concejales al frente de los departamentos de Espacios Públicos y Proyectos Urbanos, y de Mantenimiento Urbano.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo lo anterior presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio hilabete baino lehen egiteko Irisgarritasun Unibertsalaren Plana, mugikortasun urriko donostiar guztiak hirian erabat seguru mugitu ahal izatea bermatzeko modukoa.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a elaborar en el plazo de un mes un Plan de Accesibilidad Universal que garantice que todos los donostiarras con movilidad reducida puedan desplazarse por la ciudad con total seguridad

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio kronograma bat aurkezteko, urtebete baino lehen Donostian irisgarritasun unibertsala izatea bermatzeko egin behar diren lanen epeak xehe-mehe zehaztuta izango dituena.

Donostian 2022ko martxoaren 17an

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a presentar un cronograma temporal de actuación en el que se detalle con minuciosidad los hitos temporales necesarios para garantizar una accesibilidad universal en la ciudad de San Sebastián en un plazo máximo de un año.

En San Sebastián, a 17 de marzo de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marta Huarte Paño, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeek aurkeztua, Larratxoko oinezkoen kalea ibilgailuei ireki izana dela eta.**

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk eta Elkarrekin Donostia udal taldeko

**II.2.7. Moción de control, presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, por la apertura de la calle peatonal de Larratxo a los vehículos.**

"Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, y Haizea Garay Gallastegui,

zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik mozio hau aurkezten dute Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, Udalbatzan azter dadin. Mozioaren oinarria 2022ko martxoaren 14an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioetan dago.

concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, presentan, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente moción, consecuencia de las interpelaciones presentadas ante la Comisión de Espacios Públicos el pasaso 14 de marzo de 2022.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Larratxoko Osteguna auzo elkarteak eta hainbat bizilagunek salatu dutenez, bada urtebete kendu zituztela, Larratxoko Iosu Artetxe plazako oinezkoen kalean, ibilgailuen joan-etorriak oztopatzeko jarrita zeuden piboteak.

La Asociación de Vecinos Osteguna de Larratxo, así como diversos vecinos y vecinas del barrio, han denunciado que, hace un año, se retiraron los bolardos instalados en la calle peatonal Iosu Artetxe de Larratxo para impedir el tránsito de vehículos por la citada calle.

Bizilagunek adierazi dutenez, tarte horretan, ibilgailuak igaro egin dira, sarritan abiada handian, oinezkoak dabiltzan gunean. Kezka adierazi dute arrisku egoerak sortu izan direlako, bereziki, haurrak jolasean izaten direlako bertan. Inork ez daki Udalak zergatik kendu dituen pibote horiek (udaltzain batzuek egin omen zuten), ezta zergatik ez zituen berriz jarri ere, auzotarrek eskatu arren.

Según manifiestan los vecinos, durante este tiempo, los vehículos han atravesado la zona peatonal y, a menudo, a gran velocidad. Manifiestan su preocupación por la generación de situaciones de riesgo, especialmente porque los niños y niñas suelen jugar en esta zona. Nadie sabe por qué ha retirado estos pivotes el Ayuntamiento (parece que lo hicieron guardias municipales) ni por qué no los ha vuelto a poner, a pesar de que los vecinos solicitaron que así se hiciera.

Urtebete kenduta izan ondoren, jarri egin dituzte pibote batzuk batzordean agertu baino lehentxeago. Edonola, kalearen alde batean besterik ez dituzte jarri; gainera, finkoak dira, eta anbulantziak ez bezala autoak bai igaro daitezke; goiko aldetik ere, ibilgailuak igarotzen ari dira atzeraka eginez.

Tras un año de retirada, algunos pivotes han sido recolocados poco antes de que se presentara la interpelación en comisión. En cualquier caso, sólo se han colocado a un lado de la calle, son fijos y, aunque las ambulancias no pueden pasar, sí lo pueden hacer los coches. Asimismo, los vehículos siguen pasando por la parte superior de la calle circulando marcha atrás.

Batzordean, Mugikortasuneko zinegotziak erantzun zuen segurtasun arrazoiak medio kendu zituztela piboteak, eta ohikoa dela hiriko beste oinezkoentzako kaleetan ere piboterik ez izatea. Gainera, bertatik igaro izan diren ibilgailuetako erabiltzaileen bizkar utzi zuen Udal Gobernuak berak, piboteak kenduta, eragin

La concejala de Movilidad respondió en comisión que los pivotes fueron retirados por razones de seguridad y que en otras calles peatonales de la ciudad tampoco existen. Además, el Gobierno Municipal responsabilizó a los usuarios de los vehículos que han atravesado el lugar de las situaciones de riesgo provocadas, a pesar de que

dituen arrisku egoeren ardura.

Piboterik jarri ezean, oinezkoen segurtasuna bermatuko duen beste alternatibaren bat emateko eskatu genion arren, ez zuen deus erantzun. Adierazi genion ere hain jendetsua den eremuan Artetxe plaza dela Larratxok duen gune lau bakarra, eta hori kontuan izan behar zuela Udal Gobernuak oinezkoen zatia eraldatzekotan, baina horri ere ez zion erantzun.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duten zinegotziek honako KONTROL MOZIO hau egiten dute:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari itzul dezala Larratxoko plazako oinezkoen eremua duela urtebeteko egoerara, kendu eta jarri zitezkeen piboteak kalearen bi aldeetan jarrita.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala auzo elkartearekin eta bizilagunekin Larratxoko plazako oinezkoen eremua eraldatzeko edozein neurri, erabakia hartu baino lehen.

Donostian, 2022ko martxoaren 17an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

fue el propio Gobierno Municipal el que retiró los bolardos.

Y aun cuando le instamos a que aportara alguna alternativa que garantizara la seguridad de los peatones en caso de que no se repusieran los pivotes, no respondió nada. Asimismo, se le indicó que en una zona tan poblada como Larratxo, la plaza Artetxe es la única zona llana, algo que debía tener en cuenta el Gobierno Municipal a la hora de transformar la parte peatonal. La concejala delegada tampoco respondió a esta cuestión.

Es por ello que el concejal y la concejala que suscriben presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a restituir la zona peatonal de la plaza de Larratxo a la situación de hace un año, colocando pivotes desmontables a ambos lados de la calle.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, con carácter previo a la adopción de cualquier acuerdo, analice con la asociación de vecinos y con las personas residentes del barrio cualquier medida de transformación de la zona peatonal de la plaza de Larratxo.

Donostian, 2022ko martxoaren 17an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**7. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 10 – EAJ/PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 10 – EAJ/PNV.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 14 – (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (10) EAJ/PNV, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 14 – (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (10) EAJ/PNV, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udal langileen aldarrikapenei buruz.**

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las reivindicaciones de los empleados municipales.**

“Reyes Carrere Zabalak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Zerbitzu Orokorreko Batzordean jorratutako interpelazioaren ondorioa da.

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 14 de febrero de 2022.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Udalbatzarretan lekuko gara, udal langileek hilabeteak daramatzate salatzen sail gehienetan langile nahikorik ez dagoela eta, gainera, Udal Gobernuaren kudeaketa kaskarrak eragin larria duela euren lan-eskubideetan eta udal zerbitzuen kalitatean.

En los plenos de los últimos meses venimos siendo testigos de las sucesivas denuncias formuladas por los trabajadores y trabajadoras municipales en relación con la falta de personal que afecta a la mayoría de los departamentos. Asimismo, denuncian que la pésima gestión del Gobierno municipal afecta gravemente a sus derechos laborales y a la calidad de los servicios municipales.

Batetik, lan-eskubideei dagokienez, denbora luzea daramate lan-gainkarga sufritzen. Eta hori gutxi balitz bezala, murrizketak ezarri zaizkie hainbat arlotan: egutegiak, kontziliazioak, baimenak, ordezkapenak...

Por un lado, con respecto a los derechos laborales, llevan mucho tiempo sufriendo una sobrecarga de trabajo. Y por si esto fuera poco, se les han impuesto restricciones en aspectos como el calendario, la conciliación, los permisos, las sustituciones, etc.

Bestalde, zerbitzuari dagokionez, departamentu askotan langile nahikorik ez dagoenez, ezinezkoa zaie sail bakoitzak eskatzen duen lan-bolumenari erantzutea, eta horrek eragin negatiboa du zerbitzuaren kalitatean.

Por otro lado, en lo que respecta al servicio, muchos departamentos no cuentan con el personal suficiente y, como consecuencia de ello, resulta imposible atender todo el volumen de trabajo que se genera en cada departamento. Este hecho repercute negativamente en la calidad del servicio.

Beraz, langilea kaltetua eta herritarra kaltetua.

Por tanto, salen perjudicados tanto los trabajadores y trabajadoras como la ciudadanía.

Horri guztiari gehitu behar zaio gobernuaren eta langileen arteko negoziazioetan askotan akordiorik gabe bukatzea. Nolabait, gobernua asetuta geratzen da negoziazio prozesua irekitzearekin -hori baita legeak agintzen duena-, badakielako sindikatuekin adostasunik

A todo ello hay que añadir que, en numerosas ocasiones, las negociaciones entre el gobierno y el personal acaban sin llegar a ningún acuerdo. De alguna manera, el Gobierno queda satisfecho con el inicio del proceso de negociación, que es lo que marca la ley, porque sabe que lo puede cerrar sin

lortu gabe itxi dezakeela.

Baina errealitatea da gobernu honek akordioak lortzeko duen ezintasunak gora egiten duen heinean, udal langile askoren haserrea eta ezinegona ere proportzio berean areagotzen ari direla.

Beraz, argi dago egoera honek premiazko konponbide adostua behar duela inplikatutako eragileen artean: administrazioa eta langileak.

Honi guztiari buruzko interpelazioa aurkeztu genuen martxoko batzordean eta zinegotzi delegatuak erantzun zuen Udal Gobernuak sindikatuekin negoziatzen duela dagozkion foroetan. Baina negoziazio horietan askotan akordiorik ez lortzeari dagokionez, hauxe esan zuen: "Bik ez dute adosten batek nahi ez duenean".

Tamalez, ez zuen zehaztu akordiorako borondaterik eza gobernutik edo sindikatuen ordezkaritzatik zetorren.

Argi geratu zen, legeak agintzen dion bezala, Udal Gobernuak negoziatzen jarraituko duela. Baina, Udaleko langileen eta sindikatuen hitzetan, akordiorik gabe, prozesu horiek ez dira eraginkorrak izango euren lan-eskubideak bermatzeko eta herritarrek merezi duten kalitatezko zerbitzua emateko.

Hori guztia ikusita, Gobernuaren eta langileen arteko adostasun-foro berriak ezartzeko esfortzua egiteko unea da, arazoa konpondu ahal izateko.

Horiek horrela, sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du:

• Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen adostu dezala ibilbide-orri bat Udaleko ordezkari sindikalekin

alcanzar ningún consenso con los sindicatos.

Pero la realidad es que a medida que crece la incapacidad de este Gobierno para llegar a acuerdos, también crece, en la misma proporción, el enfado y el malestar de muchos trabajadores y trabajadoras municipales.

Por tanto, es evidente que esta situación requiere una solución urgente consensuada entre los agentes implicados: administración y personal.

En la comisión de marzo presentamos una interpelación sobre esta cuestión y el concejal delegado respondió que el Gobierno municipal negocia con los sindicatos en los foros correspondientes. Sin embargo, con respecto a que muchas veces en esas negociaciones no se llega a acuerdos, el concejal señaló que “dos no acuerdan cuando uno no quiere”.

Lamentablemente, no concretó si la falta de voluntad de acuerdo procedía del Gobierno o de la representación sindical.

Quedó claro que el Gobierno municipal seguirá negociando por imperativo legal. Pero, en palabras de trabajadores y sindicatos municipales, sin acuerdo, estos procesos no serán eficaces para garantizar los derechos laborales y dar el servicio de calidad que merece la ciudadanía.

A la vista de todo ello, es el momento de hacer un esfuerzo para establecer nuevos foros de consenso entre el Gobierno y el personal municipal para poder solucionar el problema.

Por tanto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

• El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a acordar cuanto antes una hoja de ruta junto con la representación sindical del

eta Langileen Batzordearekin batera, beharrezkoak diren negoziazio-guneak finka ditzala, eta udal sailen beharren diagnostiko partekatu bat egin ondoren, epe labur, ertain eta luzeko irtenbideak adostu ditzan.

Ayuntamiento y la Comisión de Personal, a fijar los espacios de negociación necesarios y a que, tras realizar un diagnóstico compartido de las necesidades de los diferentes departamentos municipales, acuerde soluciones a corto, medio y largo plazo.

Donostian, 2022ko martxoaren 18an

En San Sebastián, a 18 de marzo de 2022

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldea".

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldea".

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Marta Huarta Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
